



EMAGIN ELKARTEAREN LAN ESPERIENTZIA

2022ko martxoa

Menturari hiru dohai zor dizkiot: emazte sortu izana, clase apalekoa eta herrialde zapaldukoa. Eta hiru bider errebelde izateko urdin uherra
Merce Marçal

KOKAPENA


2003. urtean sortu genuen Emagin elkarte. Kapitalismoa, inperialismoa eta heteropatriarkatua errotik aldatzeko premiatik abiatu ginen. Ez gara hutsean aritu eta harrezkero, Euskal Herria feminismotik eraikitzeko saiakeran jarraitzen dugu. Guretzako garrantzi handikoa izan da beti, bizi gaituen sistemaren mugak agerian uztea: honen iraunaraztearen oinarritzko estrategiak agerian uztea eta bide batez, honi aurre egiteko eragile feminista indartsu bat sortzea. Horregatik, Emaginen bereziki axola zaigu ezkutuan geratu diren ekarpen feministen sozializazioa eta hauek jendartearen esku uztea.

Hasieratik ikerketa eta dokumentazio zentro feminista izateko sortu genuen Emagin, mugimendu feministak egindako hainbat hausnarketan biltegia izateko asmoz. Alabaina, bidean esperientzia berriak metatuz joan gara eta gaur egun ezagutza feminista kolektiboki bultzatu nahi duen bitartekoa ere bagara. Euskal Herria feminista antolatze bidean beharrezkoa den informazio biltzea lana, faltan diren ikerketen sustapena eta garapen ideologikoan garrantzitsuak diren eztabaida feministak bideratzen ditugu.

Azken urteetan izugarri hazi dira teoria feministak eta hausnarketak egiteko gune eta uneak. Unibertsitatean, herri mugimendu zein mugimendu feministan badago norabide honetan lanean dabilen egitasmorik. Emaginek, guzti horiek saretu eta aliantzak sortzeko elkarte izan nahi du; ezagutza feminista herrigintzaren mesedera jartzen dugu teoria eta praktikaren arteko amildegia murrizteko asmoz.

Emagin sendotzen ari gara egunez egun. Orain arteko ibilbidea emankorra izan da, baina aurrera begira lan eremuak zabaldu, sarea indartu eta egitasmoa hedatu nahi dugu.

GURE LAN JARDUNAREN OINARRIAK



- **Parte-hartzea:** Parte hartzea ez dugu informazioa eman eta iritzia eskatzera mugatuko; parte-hartzea prozesuaren dinamika osatu duten gainerakoekin osatuko da. Benetako parte-hartzea gertatzen da errealitatea ezagutuz, elkarrekin landuz, aztertuz eta denon artean zerbait sortuz. Errealitatea aldatzeko baldintza subjektiboak eta objektiboak sortu behar dira; horretarako bidea lan prozesua bera izango da. Prozesu honetan sortutako parte-hartzeak etorkizunean eragin biderkatzailea izatea bilatuko dugu.
- **Malgutasuna:** Oinarria pertsonekin lan egitea izango denez, aurreikusitako lanak eta epeak moldagarriak izan beharko dute.
- **Kontzientziakzio prozesua:** Emaitzez gain, prozesuak berak protagonismo berezia izan beharko luke, bertan parte hartu dugun pertsona guztiok prozesutik

ikasteko aukera eman beharko liguke (norbanakoek, taldeek eta erakundeek); hots, elkar elikatu behar dugu.

- **Subjektibitatea:** Prozesuen ardatza pertsonak izan behar dute. Jarrera aldaketak eman beharko lirateke, pertsona bakoitzaren ikuspegitik abiatuta.
- **Gorputza:** Gorputza gara, bizipenak eta jakintzak ere hor daude kokatuak eta hortik irauli nahi ditugu. Gorputz kontzientzia hartzeko lan egiten dugu.
- **Euskara:** Euskaraz ikasi, formatu, ikertu, hazi eta bizitzeko apustua egiten dugu. Euskaraz egin nahi dugu lan eta euskaratik pentsatu nahi dugu errealitatea; baita eraldaketa ere. Hala, hizkuntza gutxituen aldeko jarrera azaltzen dugu, pertsonen hizkuntz eskubideak prozesuan errespetatuz.
- **Emakumeen* eta gizonen arteko berdintasuna:** Bermatu beharko da gizonen eta emakumeen parte hartze parekatua, ordutegi eta metodologia egokiak guztion parte hartzea aktiboa izan dadin; hots, kontuan hartuko beharko dira emakumeen zailtasunak. Halaber, generoari buruzko proiektua izanik, neurri eta jardueretan arreta berezia jarri beharko da jasotzeko emakumeen interesak, beharrak eta ikuspegia, besteak beste.
- **Interseksionalitatea:** Askotariko emakumeek errealitate ugari partekatzen duten arren, egoera eta errealitate asko bizi ditu, ezberdinak, bereizkerietan oinarrituta. Horregatik, generoa bestelako diskriminazio iturri batzuekin gurutzatzen dela ulertzen dugu, besteak beste, adina, jatorria, etnia, klase soziala, naziotasuna, aniztasun funtzionala, mendekotasun egoera edota egoera administratiboa.
- **Feminismoa:** Generoagatiko estereotipo eta harremanen eraginaren inguruko analisi eta jabetzea iraunkorra izango da.

FORMAZIOA ETA ZERBITZUAK

Herri feminista bat eraikitzeko ezinbestekoa da eraldaketa pertsonalak eta kolektiboak bultzea. Horregatik, aurretik aipatutako lan estiloan oinarrituta, jabetzuntza eta boteretzeko prozesuak jarri nahi ditugu martxan.

Emakume talde, talde feminista, herri mugimendu eta erakunde publiko zein elkarte pribatuetan ikastaroak, lan saioak eta aholkularitzak ematen ditugu. Hauek dira eskaintzen ditugun gaiak. Behar eta eskaera zehatzetara ere moldatzen gara.

Gure genealogia feministak: Mugimendu Feministaren historia

Munduan zein Euskal Herrian mugimenduak izandako bilakaera eta aldarrikapenak ulertzea, etorkizuneko erronkei aurre egiteko tresna ezin hobea dela uste dugu. Ikastaro honetan, mendebaldeko mugimenduaren historiaz gain, Euskal Herrian 70. hamarkadatik aurrera ezagutu dugun mugimenduaren ingurua solastu gara, antolatzeke modu eta aurrera eramandako borroka aztertuz.

Udal eta elkarteek antolatutako ikastaro trinko zein hitzaldiak: Donosti, Zumaia, Asteasu, Arrasate, Billabona, Oiartzun, Etxebarri, Ondarru, Zestoa, Leitza, Zarautz, Zumaia, Oñati, Ondarru, Bilbo, Iruña, Hernani, Oiartzun, Azpeiti, Durango, Orereta, Arratia, Usurbil, Zeanuri, Bergara, Atarrabia, Urola garaia, Mutriku, Gasteiz, Baiona, Algorta, Arrasate, Tolosa, berriozar, Leioa, Gorbeialdea...

Ekin autodefentsa feministari!

Zer dira eraso sexistak? Nola pairatzen ditugu? Zeintzuk dira gure bizipenak honen aurrean? Nola identifikatu erasoak? Emakumeok pasibotasunaren ideian hezten gara eta

babes beharra dugun pertsonak garela sinesten dugu. Ideia hori hautsi eta gure buruak aitortu, egoeraz jabetu eta boteretzeko autodefentsa feminista lehenesten dugu.

Ikastaro trinkoak: Donosti, Aretxabaleta, Segura, Durango, Basauri, Eibar, Arantza, Antzuola, Bergara, Pasaia, Sarriguren, Mutriku, Oiartzun, Elgeta, Itsasondo, UPNA, Azpeiti, Urnieta Beasain, Sarriguren, Arrasate, Zumaia, Amurrio, Orduña, Altza, Olazti, Berriozar, Lasarte, Legazpi, Gares, Ibarra, Astigarraga, Plaentzi, Eskoriatza, Añorga, Azkoiti, Billabona, Maeztu, Etxarri, Gatzaga, Elgeta, Leioa, Astigarraga, Larrabetzu, Aulesti, Markina, Urretxu, Ordizi, Ermua, Alegi, Gasteiz, Anoeta, Asteasu, Intxaurondo, Iruñako auzo guztietan, Zamudio, Gatzaga, Lesaka, Otaza, Elizondo, Bilbo, Irala, Badostain, Elduaien, Irala, Gros, Ikaztegieta, Azpeiti, Beasain, Oresa, Ibarra, Irun, Maeztu, Agoitz, Bera, Urretxu, Zegama, Soraluze, Uharte, Barañain, Leioa, Ermua, Zizur, Lezo, Berritxu, Gares, Mendigorria, Orendain, Abadiño, Olite, Lasarte, Zaldibia, Lezo, Markina, Zumarraga, Basaburua, Bakio, Bera, Leaburu, Aarrabia, Zarautz, Rekalde, Berriz, Irurtzun, Mutilba, Lazkao, Legorreta, Irun, Espejo, El villar, Urroz villa, Mallavia, Kurtzebarri, Lazkao, Burlata, Beriain, Amezketa, Aduna, Aizarnazabal, Bastida, Elorrio, Orereta, Doneztebe, Orkoien, Aoiz, Gaintza, Elgoibar, Araitz, Ea, Mendaur, Pasai Antzo, Altsasua, Artaxona, Santurtzi, Irun, Aulesti, Donosti, Pasaia, Otxandio, Leitz, Soraluze, Arrankudiaga...

Indarkeria sexistari aurre egiteko protokoloak. Nola jardun.

Fenomeno konplexua izanik, indarkeriaren dimentsio zabalenera heldu eta gure herrian aurre egiteko ditugun tresnei buruz hausnartuko dugu, etorkizunean ditugun erronkak identifikatu eta gainditzeko asmoz. Indarkeriari aurre egiteko protokoloak landu ditugu.

Lan saio eta aholkularitza: Agoitz, Burlata, Altsasu, Zaldibar, Usurbil, Berastegi, Elorrio, Itsasondo, Leitz, Altsasu, Durango, Oñati, Elorrio, Ondarru, Etxarri, Donosti, Olazti, Markina, Beasain, Orduña, Beasain, Hernani, Zarautz, Sarriguren, Amoroto, Markina, Baztan, Azpeitia, Mendexa, Elizondo, Ordizi, Areatza, Elorrio, Antsoain, Berriozar, Oñati, Lekeitio, Aulesti, Baztan, Lazkaoko udala, Beasaingo txosna batzordea, Leitzako udal jai batzordea, Zamudio, Legorreta, Ondarroa, Gernika, Eguesibar bailarako udalerrak. Bizkaiko jabekuntza eskolekin zurrumurru sexistak ekiditeko prozesuak garatu ditugu Ermua, Ondarroa eta Basaurin. Baita Llantenen, Iruran eta Bariarrainen.

Iruñeako Udalak 2019an tabernarientzat eta festa lokalentzat egindako protokoloaren formazio saioen diseinu eta dinamizazioa.

Donostiko udalak eraso sexisten prebentziorako kanpainaren materialaren diseinuan parte hartu 2020an.

Indarkeria sexistarik gabeko gunek jaietan

Emakumeak eta herritarrak orohar indarkeri sexistaz kontzientziatzeko helburuarekin jai eremuan kokatzen dugun informazio puntua dugu. Erreferentia izan da Emagin egitasmo, esku hartze eta zerbitzu honen beharra eta balioa ikus-arazten. Egun, 9 urte luzeko esperientzia eta ibilbidea egin dugula azpimarratu dezakegu. Gunearen asmoa da emakumeek eta bereziki neska gazteek jaietan indarkeria sexistarekiko dituzten bizipen, iritzi eta interesak jasotzea eta babes zein elkartasun gunea irudikatzea.

Gunea jarri dugu: Donostiako udaleko gunea kudeatu dugu hiru urtez (42 ordu urtero), Azpeitiko udaleko gunea kudeatu dugu 3 urtez (32 ordu urtero), Oñatiko urgentzi telefonoa eta gunea 2014ean, Altsasuko jaiak, Eguesibarko jaiak, Zarauzko txosna batzordea, Olazti, Markina, Baztan, Aulesti, Areatza, Beasain, Lezo, Orereta, Arrasate,

Hernani, Zumaia, Urizaharra, Urduña, Ultzama, Sarriguren, Sakana, Otxandio, Orozko, Ordizia, Ondarroa, Okondo, Oka, Oiartzun, Mutriku, Maeztu, Lemoa, Audio, Kanpezu, Ibarra, Harana, Gernika, Doneztebe, Bernedo, Bastida, Badostain, Artziniega, Arespalditza, Arbizu, Irurtzun, Amurrio, Azpeitia, Oñati, Zamudio...

Arreta telefonoa eta eskuhartzea

Salaketa telefonoaren helburuak dira jaietan gertatzen den edozein intentsitateko eraso sexistak identifikatzea, erasoak gertatzen diren momentuan jakitea eta ondorioz egoerari aurre egin eta eraso horiei erantzun soziala emateko aukera izatea. Telefono bidez salaketak jasotzeaz gain, emakumeak behar duena eskaintzen saiatzen gara: urgentziako momentuetan eskuhartzea, informazioa eta aholkularitza eta aurrez aurreko arreta eta laguntza eskaintzen dugu.

Arreta telefonoa eta esku hartzea hurrengo herrietan eskeini dugu: Sarriguren, Azpeitia, Hernani, Astigarraga, Azpeitia, Ondarroa, Arrasate, Ibarra, Oñati.

Gure buruaren jabe: maite ditzagun geure buruak

Gorputzari eta mugimenduari garrantzi berezia eman nahi diogu eta burua eta arazoia bezainbeste landu nahi ditugu gorputza eta emozioak.

Lan saioak: Gernika, Zumaia, Azkoiti, Durango, Markina, Aulesti, Pasaia, Lekeitio, Getxo, Usurbil, Barañain, Beasain, Iruña, Arrieta, Okondo eta Zaldibiako jabeakuntza eskola zein Udal formazioan.

Herri jai parekideak

Festak bizitzaren erdigunean daude, baloreen munduarekin erabateko lotura dutelako; herriaren nortasuna, jendarte egitura eta hortaz, bertan ematen diren zapalkuntza eta diskriminazioak ere adierazten dituzte. Horrela, jaiak eta erritoei jendarte ordena iraunarazten dute: egungo hierarkia anitzak, hegemonikoak diren gizon eta emakume irudiak indartzen dituzte.

Txosna eta jai batzordeekin lan saio eta aholkularitza: Piratak Donostin, Usurbilen Kilometroak, Olazti, Aurrabia, Elizondo, Arrasate, Bera, Durango, Ermua, Santurtzi, Igorre, Anoeta, Pasaia, Sanduzelai, Amara berri, Ondarru, Beasaingo txosna batzordea, Leitzako jai batzordea, Legorreta, Agoiz, Elorrio, Amoroto, Zalbidar, Barakaldo.

Pedagogia feministak hezkuntzan

Hezkuntza, jendarte aldaketarako ezinbestean landu beharreko eremua da. Gure indarrak, motibazioak eta ahaleginak bertan zentratu nahi ditugu eta hezkuntza eragile formazio, aholkularitza eta elkarlan feminista proposatu. Ikastetxeak (guraso, ikasle zein irakasleekin formazioa):

Ikasleekin: Basaburua, Ataun, Larraintzar, Lasarte, Elizondo, Lekarotz, Bortzirak, Muskiz, Leitza, Iruña (Pio Baroja), Oñati, Goizerri, Arrankudiaga, Durangoko Saguanbaran, Soralue, Bilboko magisteritza eskolak, Portugalete, Baiona, Amara berri, Tolosa, Muskiz, Baztan, Leioa, Altsasua, Irun, Mendaur, Doneztebe.

Gurasoekin: Elizondo, Leitza, Ultzama, Azpeiti, Zarauzko kirol batzordearekin. Irakasleekin: Zarautz, Elizondo, Ultzama, Goizueta, Leitza, Bergara, Andoain.

Ataunen hiru urteko hezkidetzaren proiektu integrala 2014-2017.

Nafar Gobernuko SKOLAE hezkidetzaren planean parte hartu dugu 2017-2022 programaren diseinuan, aholkulari moduan, irakasleen formazioan tutore moduan eta Skolae III gateen programaren diseinu eta dinamizazioan.

Indarkeriaren lanketa ez mistoa Hezkuntzan: FP Básica Adsis Leioa, Mercederías, Artaza Romo, Betiko Ikastola, Barandiaran Behekoa, Etxebarri BHI (Basauri), Beasain BHI, Orio BHI...

Komunikazio parekidean trebatzeko ikastaroa

Erakundeetan eta eragile sozialetan, komunikazio etengabea gaude. Informazioak, proposamenak, irudiak kaleratzen ditugu uneoro. Sare sozialak erabiltzen ditugu edozertarako. Halere, mugitzen garen marko komunikatiboa aztertu gabe, nekez lortuko dugu gure komunikazioa inklusiboa izatea.

Komunikazio parekidean trebatu ditugu: 2015tik Arrasateko udalerrian, Arrasateko udalak eskatuta, Goiena komunikazioaren baitan, erreferentzia izango den egitasmoa zuzentzen ari da Emagin. Etengabeko formazioa, gidaliburuak eta aholkularitza zerbitzua aurrera atera dugu.

Sortu alderdiarekin ere egin ditugu komunikazio parekidean oinarritutako saioak.

Ekonomia feministaren oinarriak. Nola jarri bizitza erdigunean?

Krisi testuinguru honetan, genero ardurak naturalizatuak egonkortzen ari dira. Ekonomia feminista lan saio honen bitartez, generoak duen dimentsio sozioekonomikoan sakondu dugu.

Lan saioak: Azpeitia, Andoain, Berriozar, Egino, Zaldibar, Zarautz, Elizondo. Koopfabrika 2019-2022,

Politika feministak: zinegotzi eta udal langileei zuzendutako trebakuntza saioa

La bi hamarkada pasa eta gero, berdintasun politikak eta zeharlerrotasuna hainbat eremu eta erakundeetan aplikatu direla esan dezakegu. Aldiz, emakumeon zapalkuntzarekin amaitu dela eta berdintasuna dagoela ezin dugu esan. Horregatik, ezinbesteko elementua deritzogu, aurretik egindako akatsetatik ikasi eta aldaketarako borondate politikoan oinarritutako politika publikoak martxan jartzea.

Zeharlerrotasuna, ekintza positiboak eta ahalduzko estrategiaren tokiko aplikazioa landu dugu: Baztan, Lea-Ibarra, Altsasu, Donosti, Ordizi, Ondarru, Altsasu, Leitza, Basaburua, Doneztebe, Legorreta, Zaldibi, Sorluze.

Zaintzak lanen demokratizaziorantz

Lezo, Bermeo, Zumaia, Zarautz, Andoain, Hernani, Zestoa, Urnieta, Usurbil...

Eskola feminista iraunkorrak

Gai eta beharren arabera egiten ditugun ikastaroak dira. Orain arte honakoak izan dira egin ditugun nagusiak:

- **Eraldaketerako pedagogiak eta jarduerak feministak hezkuntzan: hezkidetzaren** "Bizkaiko Urtxintxarekin batera araban, gipuzkoan eta bizkaian eskeintzen dugun 200 orduko ziurtagiri formatibo bat da.
- **LABek sindikatuaren barne formaziorako eta prozesu feminista bermatzeko martxan jarritako eskola feminista** iraunkorraren arduradun nagusiak gara. Eskolako edukiak bermatu, metodologia aproposak proposatu eta taldeen ebaluazio eta garapenaz arduratu gara. 2 urteko prozesuaren erdian gaude, orotara 250 kidek parte hartuko duten prozesua da eta 500 orditik gorako esku hartze formatiboa oinarri duena.
- **Skolae hezkidetzaren programa:**

- Programaren diseinua
- Tutore lanak irakasleen on-line formazio programan
- Formazio saio presentzialak
- Skolae III Gazteen programaren dinamizazioa ikastetxeetan.
- **Taupada** Neska gazteen formazio eta ahalduntzerako programa: 2020-2021 INAlrekin batera.
- **Prest gara! Formazio programa UEUrekin batera** : 2020 udaberria, 2020 udazkena, 2021 udaberria, 2021 udazkena, 2022 udaberria.
- **EH bilduko Eskola Feminista: 2020-2021 ikasturtea**
- **Azpeitiako zaintza taldea 2020-2022**

Espazio eta zerbitzuen kudeaketa

Emakumeen etxe zein bestelako berdintasun zerbitzuen kudeaketa egiten dugu emakumeen ahalduntzearen mesedetan jartzeko helburuarekin.

- **Azpeitiko Emakumeen Txokoa** kudeatu dugu (2012-2018)
- **Ibarrako berdintasun arloko teknikariak** gara (2017-2019)

IKERKETA ETA ESKUHARTZE KOMUNITARIOA

Ikerketa eta metodologia feministek eskaintzen dituzten ikerketa tresna berriak baliatzen ditugu. Egiten ditugun ikerketetan oinarrituta tokian tokiko eskuhartzeak egiten ditugu. Errealitate soziala aztertzeaz gain ezinbestekoa da berau aldatzeko proposamenak garatzea eta horretan dago Emagin.

Orain arte egindako ikerketak eta eskuhartzeak lau ildo hauen arabera egin ditugu: Genealogia feministak, Indarkeria matxistak, Bizitza duinak erdigunean eta analisi eta eraldaketa feminista.

Genealogia feministak

- Euskal Herriko Mugimendu Feministaren historia: *“Gure genealogia feministak: Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat”* Lilburua eta artxiboaren sorrera. 2008-2015
- “GORPUTZ_GRAFIK” erakusketa Koldo Mitxelena kultur gunean 2015eko apirila-ekaina. Iruñeko Condestable jauregian 2018ko azaroa-abenduan.
- “GORPUTZ_GRAFIK: Memoria feministaren marruak” erakusketa Condestable Civivox Iruña. 2019ko maiatza.
- Gorputz_Grafiak erakusketa ibiltaria: Arbizu eta Irunberri.
- Indar bat gara gu: Euskal Herriko Bilgune Feministak 15 urte. EHBFFren 15 urteko ibilbidearen gaineko ikerketa lana 2017
- Salda badago Euskal Herriko V. Jardunaldi feministak prozesuaren sistematizazioa. 2020

Indarkeria matxistak

- Hiri/herrietako puntu kritikoen mapak : *“Puntos críticos en sanfermines. Diagnóstico sobre seguridad desde la experiencia de las mujeres”* (2016), *“Del Zizur Prohibido al Zizur libre para las mujeres”* (2017), *“Diagnóstico sobre puntos críticos desde la realidad de las mujeres de Barañain”* (2018), *“Legorretako puntu kritikoen mapa”* (2018)
- Erakundeen barruko eraso sexistak kudeatzeko protokoloak osatzeko prozesuen dinamizazioa eta formazioa: Bertsozaleen elkarte, Euskaltzaleen topagunea.

- Festa eremuetan eta gaueko aisialdi pribatuan ematen den indarkeria sexistari aurre egiteko prebentzio eta ekintza protokoloaren inplementazio eta jarraipenerako laguntza teknikoa . Iruñeako udalarekin 2019an
- Indarkeria sexistari aurre egiteko erakundearteko protokoloak. Diagnostikoak eta 'protokoloak zehazteko ikerketa eta eskuhartze prozesuak: LAGA, Leitza, Baztan
- Indarkeria sexistari aurre egiteko udal protokoloak: Ordizia, Larrabetzu, Araitz-Betelu, Goizueta
- Autodefentsa feminista zahartzaroan ikerketa 2019 Emakunde
- Ikerketa kuantitatiboa. Indarkeria matxistaren inguruko inkesta irungo emakumeei. 2021

Bizitza duinak erdigunean

- Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena (2018)
- Ataungo zaintzaileen genealogia (2020)
- Oñatiko zaintzaileen genealogia feminista (2020-2021)
- Andoingo zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako ardatzak 2021
- Usurbilgo zaintza ekosistema definitzeko aholkulari lanak 2020-2022
- Hernanin zaintza lanen demokratizaziorantz ekintza plana eta Zaintza mahaiaren dinamizazioa 2020-2022
- Elkar zainduz, zaintza eskubide kolektiborantz 2022-2023 Zaldibia
- Elkar zainduz arriskutsuak gara. Covid-19aren inpaktua emakumeengan: Indarkeria matxista eta zaintza lanak. 2021

Analisi eta eraldaketa feminista

- Izendegia: *"Izena eta izana ezbaian . Euskal izendegia eta sexuaren araberako bereizkeria"* (2016)
- Genero ikuspegia komunikabideetan: Goienako diagnostikoa egin eta sexismoa gainditzeko plana. *"Arrasateko udal langileentzako gida. Komunikazio parekidea eta hizkuntza administratibo inklusiboa"* (2017)
- Gabilta adituen atari digitalaren ikerketa beka eta atari digitalaren sorrera.
- Ondarroako etxelila parte-hartze prozesuaren dinamizazioa 2014
- Hezkidetza planak : *"SKOLAE. Berdinbidean-Educando en igualdad"* Nafar Gobernuo I Hezkidetza planaren edukien osaketan eta tutorizazio lanetan aritu (2017-2022)
- Berdintasun diagnostikoak eta planak : *"AEK erakundearen genero diagnostikoa"* (2019), *"Euskaltzaleen topagunearen berdintasun diagnostikoa eta ekintza plana"* (2019), *Saiaz Mankomunitateko II. Berdintasun Plana 2019, Pasaiaiko berdintasun politiken ebaluazioa eta II berdintasun plana 2020-2021, Antzuolako berdintasun diagnostikoa 2020, Berritxuko genero diagnostikoa eta II. Berdintasun plana (2022), IZT Kooperatibako diagnostikoa eta berdintasun plana.*
- Herriko festetan behaketa lanak: *"Tiburtzio Donearen Pestak. Leitzako behaketa lana "* (2018) *" Legorretako Asintzio Jaiak. Behaketa lana genero ikuspegitik"* (2019)
- EAEko Berdintasun egoeraren diagnostikoa. Aztiker eta Emakunderekin elkarlanean 2022

HEDAPENA ETA EKOIZPENA

Ikerketa lerroa sustatzeaz gain, hauek herrigintzaren mesedetan jartzeko horiek hedatzeko beharrezkoak diren bitarteko eta tresnak eskaintzen ditugu.

- *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*
- *Gorputz_Grafiak* erakusketa
- *Izena eta izana ezbaian. Euskal izendegia eta sexuaren araberako bereizkeria*
- *Beldurrak gurekin jai. Ekin autofedentsa feministari*
- *Hezkidetza gida*
- *Komunikabideetan sexismoa ekiditeko estilo liburua*
- *Laura esaten zioten. Miren Odriozolaren borrokak. Txalaparta editorialarekin*
- *Sukaldetik plazara* dokumentala
- *Festa dezagun gaurdanik geroa* dokumentala
- *Arrakala* dokumentala
- *Uste ustelak: Zurrumurru matxistarik ez gida.*
- *Beterri-Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena.*
- *Ezagutzaren matazak.* Lisipe-Susa editorialarekin
- *Transexualitateak: Hekuntza-praktika feminista beterako ekarpenak.*
- *Elkar zainduz arriskutsuak gara.* Erakusketa eta dossiera.
- *Elkarte eta kolektiboetan eraso matxisten kudeaketarako protokoloak egiteko gida.*
- *Araka ditzagun gure bazterrak. Kritika dekolonialak zeharkaturiko ibilbide bat.* Lisipe-Susa editorialarekin